



PLENTZIAKO UDALAREN WEBGUNEKO IRAGARKIA, JAIETAN, EKITALDI HERRIKOIETAN NAHIZ HERRIAN ANTOLATZEN DIREN BESTELAKO EKITALDIETAN JARTZEN DIREN POSTU TRADIZIONALEN EDO FOOD TRUCK-EN BITARTEZ EGITEN DEN NOIZBEHINKAKO SALMENTA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN GAINEKO HERRI KONTSULTARI BURUZKOA.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluari jarraituz, helburutzat hartuz hiritarren parte-hartzea hobetzea arauak egiteko prozeduran, eta JAIETAN, EKITALDI HERRIKOIETAN NAHIZ HERRIAN ANTOLATZEN DIREN BESTELAKO EKITALDIETAN JARTZEN DIREN POSTU TRADIZIONALEN EDO FOOD TRUCK-EN BITARTEZ EGITEN DEN **NOIZBEHINKAKO SALMENTA** ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA proiektua egin baino lehen, arau berriak ukituko dituen pertsona eta antolakunde esanguratsuenen iritzia biltzen da puntu hauei buruz:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Ordenantza hori onartzeko beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen bestelako konponbideak, arauak izan ala ez.

Nahi duten hiritar, antolakunde eta elkarte guztiek aukera dute galdetegi honetan jasotako gaiei buruzko beren iritzia helarazteko, iragarki hau udalaren web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta HAMABOST EGUN BALIODUNEKO epean, galdetegia aurkeztuta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan zehazten diren lekuetariko batean.



<p>Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak</p>	<p>Nola ez dagoen arlo honetako udal araudirik, une honetan arautu gabe daude saltoki iraunkorretatik kanpoko salmenta eta hortik erator daitezkeen erantzukizunak. Orobat nahi da oraingo erabilerak legeztatzea, posible izatera, eta arautzea.</p>
<p>Ordenantza onartzeko beharra eta egokitasuna</p>	<p>Ekonomi Garapen, Turismo, Merkataritza, Enplegu eta Landa Ingurune zinegotzigoaren asmoa da salmenta ibiltari tradizionala eta bere modalitate guztiak arautzea, horrela Euskadiko Tokiko Erakundeen 2/2016 Legearen 7. artikulua betetzeko, zeinak bere 34. atalean baitio udalek eskumena dutela barne-merkataritza antolatu eta kudeatzeko, zehatzago esanda, eskumena dute merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatu eta kudeatzeko. Nola ez dagoen araudi propiorik, helburutzat hartu da araudi bat onartzea 2019-2020 epealdian, indarrean sar dadin ahalik eta azkarren.</p>
<p>Arauaren helburuak</p>	<p>Ordenantza honen helburua da baldintzak eta prozedurak ezartzea udalak baimendu dezan saltoki iraunkorretatik kanpoko salmenta (bere modalitate guztietan) eta salmenta horren araubide juridikoa erregulatzea.</p>
<p>Egon daitezkeen bestelako konponbideak, arauak izan ala ez</p>	<p>Ezinbestekoa da Udal Ordenantza hau onartzea, une honetan Plentziak ez daukalako inolako araudirik.</p>

Plentzian, 2019ko urriaren 31ean.

Alkateak

Sinatua.- Elixabete Uribarri Uriarte.

